

Gernuarekin erreakzionatzen duen pixoihala.

Goizane Sáenz de la Fuente, Irati Castro, Marta Codesido, Garazi Sainz eta Jon Xabier Basogain.


MERKATUAREN SEGMENTAZIOA.

Gure bezeroaren profila ez dago mugatuta, hots, edonork erosi dezake gure produktua. Dela pixoihalak behar dituen ume txikia, dela arazoak dituen adin ertaineko edonor, dela nagusia den edozein pertsona. Hala ere, aurreikusi dugu gure produktua erosiko dutenak oro har umeak eta pertsona nagusiak izango direla; izan ere adin tarte honetako pertsonak dira pixoihal honek asetzen dituen betebeharrak izan ohi dituztenak. Hortaz, gure xede-bezeroa jaioberriak eta pertsona nagusiak dira; hala ere adin tarte honetatik dauden pertsonak ez ditugu baztertuko eta hauentzako ere pixoihalak egitea aurreikusten dugu, hala nola gaixorik daudenak eta mugitu ezin daitezkeenentzat.

Uste dugu gure bezeroek pixoihalak beste pixoihalekiko eskaintzen duten abantaila asko baloratuko dutela. Izan ere, pertsona askori buruhaustek ekartzen dizkien arazoa konpontzen du gure pixoihalak.



Badakigu bezorik gabe gure “lokan” propioa ez doala inora eta proiektuak ezin duela luzaro iraun. Horrexegatik eta aurreko paragrafoetan aipatutako arrazoiengatik guk gure produktua edonorentzat egingo dugu. Bezero guztiei ondo aurre egiteko komunean dute betebeharra ase nahi izan dugu: pixoihalak erraztasunez aldatu ahal izatea; izan ere, genuarekin erreakzionatzen duen zinta batek pixoihala aldatzeko beharrik dagoen ala ez adieraziko du. Hortaz berriro ere argi utzi nahi dugu gure proiektua ez dagoela merkatuko segmentu bati bakarrik bideratuta, haatik merkatu osora zabaldu nahi dugu; eta erabaki hori arestian aipatutako pisuzko arrazoiak justifikatzen dute. Hala ere, argi utzi nahi dugu arreta berezia ipini nahi diegula umeei zein adinekoei.



“Merkatu osoa hartzen dugu, baina adinekoei eta umeei arreta handiagoa ipiniko diegu.”

Uste dugu umeei – eta nola ez, hauei pixoihala aldatzen dieten gurasoek - , adinekoek eta ospitaletako langileek pixoihal hauek baloratuko dituztela; izan ere, hauen eguneroko lana izugarri erraztuko da pixoihala irekitzen ez direlako egon behar. Gainera, nola ez, pixoihala daramatenek ere izugarri baloratuko dute hauek ematen duten zerbitzua; izan ere, askotan pixoihala aldatzeko beharra izaten dute eta hau aldatu behar dietenak ez direnez konturatzen, ordu luzeak ematen dituzte pixoihal zikina soinean daramatela.